Erabiltzaileari egotzi ahal zaizkien berandutza kosteak: 85 euro

*Hirugarrena.–* Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea eta egiaztapenak egiteko baimendutako entitateen erregistroan inskribitzea, honako zenbaki honekin: LAB-02-MAS

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea ixten, eta, beraz, gora jotzeko errekurtsoa ere jar liteke hilabeteko epean, honako ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio eta Plangintza sailburuordeari zuzenduta, halaxe ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzeko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 29a.

Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendaria,
RUBÉN MENDIOLA ERKOREKA.

Coste de demoras imputables al usuario: 85 euros.

*Tercero.–* Ordenar la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y la inscripción en el Registro de entidades de verificación como entidad de verificación oficialmente autorizada con el número: LAB-02-MAS

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Administración y Planificación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz a 29 de octubre de 2003.

El Director de Administración de Industria y Minas,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

## Zk-6633

EBAZPENA, 2003ko urriaren 29koa, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena; honen bidez, Samso Calibración Industrial, S.L. entitateari baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoan instalatuak dauden baskulei, hain zuzen ere, neurketa-ahalmena 3.000 kg-tik 200.000 kg-ra bitartekoa dutenei, aldizkako egiaztapenak baita konponketa zein aldaketaren ondorengoak ere egin diezaien.

AURREKARIAK:

Mikel Samsó Arcay jaunak 2003ko urriaren 1ean, Samso Calibración Industrial, S.L., Metrologia eta pisaketa industrialeko laborategia, enpresaren izenean eta haren ordez, Euskal Autonomia Erkidegoan instalatuak dauden pisatzeko tresna ez-automatikoen egiaztapena egin ahal izateko baimen-eskabidea aurkeztu zuen. Neurketa-ahalmena 3.000 kg-tik 200.000 kg-ra bitartekoa duten baskuletarako baimena izango da.

Eskabidearekin batera Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 23ko Aginduaren 5. artikuluan xedatutako dokumentazio guztia aurkeztu zuen.

Espediente honen ebazpenean beharrezkoa da honako hauek aintzakotzat hartzea:

## N°-6633

RESOLUCIÓN de 29 de octubre de 2003, del Director de Administración de Industria y Minas, por la que se autoriza a la entidad Samso Calibración Industrial, S. L. para realizar las verificaciones periódicas y después de reparación o modificación de básculas de más de 3.000 Kg y hasta 200.000 Kg de alcance máximo, instaladas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ANTECEDENTES DE HECHO:

Con fecha 1 de octubre de 2003, D. Mikel Samsó Arcay, en nombre y representación de la empresa Samso Calibración Industrial, S. L. Laboratorio de Metrología y Pesaje Industrial, ha presentado solicitud de autorización como entidad de verificación oficial de los instrumentos de pesaje de funcionamiento no automático, básculas de más de 3.000 Kg y hasta 200.000 Kg instaladas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Junto a la solicitud ha presentado toda la documentación exigible indicada en el artículo 5.º de la Orden de 23 de abril de 2003 del Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

Para la resolución de este expediente es preciso tener en cuenta los siguientes,

ZUZENBIDE OINARRIAK:

1.– Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzak du ebazpen hau emateko eskumena, hala agintzen baitu Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urriaren 16ko 223/2001 Dekretuaren 9. artikuluak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontrola burutzeko bitartekoak ezartzen dituen otsailaren 27ko 38/2001 Dekretuak 11. eta 12. artikuluetan xedatzen duenez, aldizkako egiaztapenak, baita konponketa zein aldaketa ondorengoak ere egiteko, dekretu horretan bertan xedatzen diren eta 2003ko apirilaren 23ko Aginduak 5. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten entitateak baimendu ahalko dira.

3.– Egiaztapenak egin ditzakeen entitate baimendua izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatu du Samso Calibración Industrial, S.L. enpresak, horretarako behar ziren dokumentuak aurkeztuta. Baldintza horiek espediente honen izapidean bete dira eta Gipuzkoako lurralde-bulegoak aldeko txostena eman du.

Aipatutako lege-manuak eta, oro har zein berariaz, gai honetan erabilgarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, Industriako Zerbitzuko buruak halaxe proposatuta,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Samso Calibración Industrial, S.L. enpresa —Industrialdea, 26 zk., Oialume Bidea, 33, Ergobia auzoa, 20115 Astigarraga, Gipuzkoa— baimentzea pisatzeko tresna ez-automatikoen egiaztapen ofiziala egiteko. Neurketa-ahalmena 3.000 kg-tik 200.000 kg-ra bitartekoa duten baskulen egiaztapena egiteko baimena izango da.

***Bigarrena.–*** Baimen honen edukina eta norainokoa ondoren adierazitako baldintzen menpe egongo da:

1.a Orokorrak: Gipuzkoako lurralde-bulegoak egingo dituen ikuskaritza eta zaintza lanen menpe jarriko da entitatea, bulego horretako teknikariek baimena emateko eskatu diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar beste ikuskaritza egingo baitute.

2.a Laborategia industrialdean dago, 26 zk., Oialume Bidea 33, Ergobia auzoa, 20115 Astigarraga, Gipuzkoa.

3.a Esleitutako identifikazio zenbakia. LAB-03-MAS

4.a Balio-denbora. Bost urte, eta berritu daiteke.

5.a Jarduketa-eremua. Pisatzeko tresna ez-automatikoen egiaztapena, 3.000 kg-tik 200.000 kg-ra bitarteko neurketa-ahalmena dutenak.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS:

1.– La Dirección de Administración de Industria y Minas es el órgano competente para la resolución del presente expediente, de conformidad con lo establecido en el artículo 9, del Decreto 223/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

2.– El Decreto 38/2001, de 27 de febrero, por el que se establecen los medios para la ejecución del Control Metrológico en la Comunidad Autónoma de Euskadi, determina en los artículos 11 y 12 que para la realización de las verificaciones periódicas y después de reparación o modificación pueden ser autorizadas entidades que cumplan los requisitos y condiciones que en él se indican y se especifican en el artículo 5.º de la Orden de 23 de abril de 2003.

3.– La empresa Samso Calibración Industrial, S. L., ha acreditado mediante la documentación presentada el cumplimiento de los requisitos para su autorización como entidad de verificación oficialmente autorizada, requisitos que han sido cumplimentados en la tramitación de este expediente e informados favorablemente por la Oficina Territorial en Gipuzkoa.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación, y a propuesta del Jefe de Servicio de Industria,

RESUELVO:

***Primero.–*** Autorizar como entidad de verificación oficial de instrumentos de pesaje de funcionamiento no automático con alcances superiores a 3.000 Kg y hasta 200.000 Kg, a la Empresa Samso Calibración Industrial, S. L., con sede en Polígono Industrial, n.º 26, Oialume Bidea 33, B.º Ergobia, 20115 Astigarraga en el Territorio de Gipuzkoa

***Segundo.–*** El contenido y alcance de esta autorización estará sujeto a los siguientes condicionamientos:

1.º Generales. La entidad estará sometida a la inspección y vigilancia de la Oficina Territorial de este Departamento en Gipuzkoa, cuyos técnicos efectuarán las inspecciones necesarias para comprobar que se mantienen los requisitos exigidos para la autorización.

2.º El laboratorio se encuentra ubicado en Polígono Industrial, n.º 26, Oialume Bidea 33, B.º Ergobia, 20115 Astigarraga, del Territorio de Gipuzkoa.

3.º Número de identificación asignado. LAB-03-MAS

4.º Periodo de validez. Cinco años, renovables.

5.º Ámbito de actuación. Verificación de instrumentos de pesaje de funcionamiento no automático desde alcance máximo superior a 3.000 Kg, hasta alcance máximo de 200.000 Kg

6.a Beti eskura dagoen ekipamendua.

a) Instalazio, ekipo eta tresnak legalak dira eta eskumena duen erakundeak aldizkako kalibraketak egin beharko dizkie. Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzak du horien guztien zerrenda xehea.

b) Tresna horiek aldatzen direnean, edo horietan beraietan aldaketarik sartzen denean, Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio agiri fede-emailea bidalita, helbidearen arabera dagokion lurralde-bulegora.

7.a Laborategi honi esleitu zaizkion zigilu eta markak, tresna eredua onartzeko eranskinean ezarritako lekuetan jarriko dira, egiaztapen frogak pasatu ondoren; eta honakoak izango dira:

6.º Equipamiento permanentemente disponible.

a) Las instalaciones, equipos e instrumentos de los que la Dirección de Administración de Industria y Minas dispone de una relación pormenorizada, tienen carácter legal y deberán ser calibrados periódicamente por Organismo competente.

b) Cualquier modificación o cambio de la instrumentación será notificada de forma fehaciente a la Dirección de Administración de Industria y Minas a través de la Oficina Territorial correspondiente a su domicilio.

7.º Los precintos y marcas asignadas a este laboratorio, y que se colocarán una vez superadas las pruebas de la verificación, en los lugares establecidos en el anexo de la aprobación de modelo del instrumento, serán los siguientes:

a) Zigilu arrunta:

*a) Precinto normal:*

Aurpegialde

*Anverso*




Atzealde

*Reverso*




b) Hestebeterako zigilua:

*b) Precinto embutido:*




c) Plastikorako zigilua:

*c) Precinto de plástico:*

Aurpegialde

*Anverso*




Atzealdea

*Reverso*



XX hizkiek ordezkatzen dituzten zenbakiak alda daitezke, egiaztapena egiten den urteko azkenengo bi zenbakiak baitira

8.a Hiruhileroko txostena. Baimendutako entitateak hiru hiletan behin txostena aurkeztu beharko du Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoan, egiaztatu diren tresnen kokapena eta aginduan adierazitako datuen zerrenda xehea bertan jasoko dela.

9.a Aplikatu beharreko tarifak.

Las dos cifras que se simbolizan con XX son variables y corresponderán a los dos dígitos finales del año en que se efectúa la verificación

8.º Memoria trimestral. La Entidad autorizada presentará trimestralmente en la Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo correspondiente a la ubicación de los instrumentos verificados, una relación completa con los datos indicados en la Orden.

9.º Tarifas a aplicar.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.– | 3.000 Kg | < Q ≤ | 6.000 Kg | — Tarifa: | 150 euro |
| 2.– | 6.000 | < Q ≤ | 15.000 | — Tarifa: | 315 euro |
| 3.– | 15.000 | < Q ≤ | 30.000 | — Tarifa: | 540 euro |
| 4.– | 30.000 | < Q ≤ | 45.000 | — Tarifa: | 700 euro |
| 5.– | 45.000 | < Q ≤ | 60.000 | — Tarifa: | 1.335 euro |
| 6.– | 60.000 | < Q | | — Tarifa: | AURREKONTUA |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *1.–* | *3.000 Kg* | *< Q ≤* | *6.000 Kg* | *— Tarifa:* | *150 euros* |
| *2.–* | *6.000* | *< Q ≤* | *15.000* | *— Tarifa:* | *315 euros* |
| *3.–* | *15.000* | *< Q ≤* | *30.000* | *— Tarifa:* | *540 euros* |
| *4.–* | *30.000* | *< Q ≤* | *45.000* | *— Tarifa:* | *700 euros* |
| *5.–* | *45.000* | *< Q ≤* | *60.000* | *— Tarifa:* | *1.335 euros* |
| *6.–* | *60.000* | *< Q* | | *— Tarifa:* | *PRESUPUESTO* |

– Hona hemen joan-etorrietako gastuak:

Egiaztatzeko materialaren garraio-kostea, joan-etorria (kilometrajea, eta lekualdatzerako behar den denboraren arabera), orduko. Tarifa: 80 euro.

Teknikarien joan-etorria (kilometrajea eta lekualdatzerako behar den denboraren arabera): 43 euro/teknikari bakoitzeko.

***Hirugarrena.***– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea eta egiaztapenak egiteko baimendutako entitateen erregistroan inskribitzea, honako zenbaki honekin: LAB-03-MAS

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea ixten, eta, beraz, gora jotzeko errekurtsoa ere jar liteke hilabeteko epean, honako ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio eta Plangintza sailburuordeari zuzenduta, halaxe ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzeko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 29a.

Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendaria,
RUBÉN MENDIOLA ERKOREKA.

– Los costes por desplazamiento serán:

Porte del material de verificación de ida y vuelta (en función del tiempo de traslado y kilometraje), por cada hora. Tarifa: 80 euros.

Desplazamiento del personal técnico (en función del tiempo de traslado y kilometraje): 43 euros/técnico.

***Tercero.***– Ordenar la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y la inscripción en el Registro de entidades de verificación como entidad de verificación oficialmente autorizada con el número: LAB-03-MAS

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Administración y Planificación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999 de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz a 29 de octubre de 2003.

El Director de Administración de Industria y Minas,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.